



CARITASEN KANPAINA INSTITUZIONALA 2017ko **EGUBERRIAK**

Esta Gabonetan izan zaitez gure konpromisoaren PARTAIDE
Zure ahalegina denon atsegina

Liturgi gidoia. Abenduko 3. Igandea (2017.12.17)

Sarrera

Ongi etorriak igande honetako gure ospakizunera. Gabonak prestatzeko azken ahalegina egiteko gertu gaude. Ez dugu nahi Gabonak etortzea gugana arretarik ipini Gabe, **gure konpromisoak mundua hobetezen duela** jakinda.

Gure portaera beti da gogotsua; eta batez ere orain, Jainkoaren Semearen jaiotzak pozez betetzea nahi dugunean. Gabonak Beregana hurbildu eta gure artean biltzen gaitu.

Penitentzi ekitaldia

Jainkoa gure artean dugu beti. Orain, Gabonetan, Jesusen jaiotzaren bitartez dago bereziki hurbil gugandik. Berak eskaintzen digun hurbiltasunez baliatzen gara, babestuak eta barkatuak sentitzeko.

- 1.- Jauna, Gabonetan eta beti, geure egoismoari uko egitea gura dugu, ondoan ditugun pertsonengan zu zeu ikusi eta sentitzeko. **ERRUKI JAUNA.**
- 2.- Kristo, Gabonetan eta beti, gure bizitzan Zugandik eskuratzen duguna eskuzabaltasunez eman eta jaso, partekatzea nahi dugulako. **KRISTO, ERRUKI.**
- 3.- Jauna, Gabonetan eta beti, jaio zinen modura bizitzeko toki duinik ez duten perstonak babestu nahi ditugu, zu izango bazina bezala. **ERRUKI, JAUNA.**



Irakurgaiak.

1. **Irakurgaia.** Is 61, 1-2/10-11: Aldarrikatu, sendatu, barkatu, askatu...laster jaioko den Haurraren betetzeko diren promesak dira. Jainkoarengandik heltzen zaizkigun dohainak ditugu, eta gureganatu eta praktikan jarri behar ditugunak.
2. **Irakurgaia.** 1 Tes 5, 16-24: San Paulok Tesalonikako kristauak animatzen zituen, eta orain esker onekoak izan, otoiz egin eta esperantza alaituan bizitzera bultzatzen gaitu. Arrazoia de kristauok Espirituaren dohainak jasotzen ditugula, batez ere bizitzaren eta pertsonen alde on zein positiboak bereziki eta aprobeztatzeko gaitasun leiala.

Ebanjelioa. Jn 1, 6-8/ 19-28: Joan Bataiatzaileak bezelaxe lekuko izan eta Gabon-gauan heltzen zaigun argiaren testigantza eman nahi dugu, Jaio beriarengan, anaitasunean eta maitasunean oinarritutako bizitza aztertzen eta zuzentzen laguntzen gaituen argia antzematera lortuko dugu.

Fededunen otoitza.

Bata besteraen alde egiten dugu otoitz, eta denon artean hautematen ditugun beharren alde egingo dugu otoitz. Jainko Aitaren begi erukitsuekin begiratzean sortzen diren pertsonak zein bizitza proiektuen alde ere.

1.-Eliza eta bere komunitateen alde, Eguberriak irekiak eta lasai aurki gaitzan, bake, adiskidetasun, elkartasun eta familia hurbiltasunez asetuak izateko prest

Eska diezaiogun Jaunari

2.- Gabon garaian amaitu daitezten behin betiko gerrak eta indarkerriak, mahatxuak eta borrokak, erasoaldiak eta miseria; eta pertsonengan zein herrietan justizia eta bake, itxaropena eta anaitasunez errealitateak eta sentimenduak sor daitezten.

Eska diezaiogun Jaunari



3.- Babes eta bake bila, gure artean gaixotasuna, bakardadea, segurtasun falta eta euren familiakoen urruntasun egoera bizi dituztenak hartuko ditugu gogoan,

Eska diezaiogun Jaunari

4.- Egun hauetako ospakizunean fedea bizitzera, esperantza indartzea eta karitatea praktikan jartzea bultza gaitzabela.

Eska diezaiogun Jaunari

5. Elizbarrutiko Caritasen zereginetan protagonista sentí gaitezen, eta gure parte hartzeaz, Ebanjelioak dionaren arabera txikienen, hots, anai-arreba anitzen beharrak konpon daitezten.

Eska diezaiogun Jaunari

Agurra.

Eguberri garaia grazia, zintzotasun eta elkartasun unea da, eta mundua hobtezeko konpromisoa. Eguberrian, Jesus Haurra bere askan kontenplatu behar dugu, alegia, bere behatasunean, era berean gure harrera eta babes irmoak behar dituztenen bizitzan eta aurpegian ere ikusten dugularik.

Elizbarrutiko komunitatearen ebanjelio konpromisoari esker, Caritasek pertsona behartsu eta ahukengan egin dezake egia Ebanjelioren eredu den **Neuri egiten didazue** (cf Mt 25, 40) esaldia

Eskerrik asko zuean parte hartzea, otoitza eta babesagatik.

Eguberri zoriontsua!